

ARRAZOIEN AZALPENA

Estatu Espainiarrean urtero-urtero 3.500-4.000 pertsona kutsatzen dira birusarekin; guztira 150.000 pertsonari eragiten dio gaixotasunak. Diagnostiko berrietatik % 45 berankorrak dira, eta horrek zaildu egiten du protokolo sanitarioa abian jartzea, eta baita pertsonaren susperraldia ere. Egun urtero 1.000 lagunetik gora hiltzen da Estatu Espainiarrean hiesarekin zerikusia duten gaixotasunen ondorioz. Gainera, birusa harrapatu duten 50.000 lagunek ez dakite dutenik ere; heren batek, alegia; eta horrek hirugarren batzuei kutsatzeko arriskua areagotzen du; izan ere, ezjakintasun horren ondorioz gertatzen dira kutsapenen % 70 baino gehiago. Euskadin zenbakiak askoz ere txikiagoak dira, baina hala ere, kezkagarriak dira: 2012. urtean 46 lagun kutsatu eta 35 hil ziren.

Lehenengo mailako osasun-arazo baten aurrean, Espainiako Gobernuak Hiesari buruzko Plan Nazionalaren aurrekontua % 80 murriztu du: 2011n hiesaren inguruan lan egiten zuten erakundeek 4,5 milioi euro jasotzen zuten, eta 2013an, berriz, milioi bat euro baino ez. Murrizketa handi horren ondorioz, GIBekin bizi diren pertsonak artatzeko zerbitzuak desegin dira, ezinbestean; halaber, prebentzio-zerbitzuak eta -kanpainak ere desegin dira, Hiesari buruzko Plan Nazionalaren baitan estatu mailan, maila autonomikoan eta herri mailan garatzen ziren zerbitzu eta kanpainak, alegia.

Prebentzioaren arloko murrizketa horiei osasun arloko murrizketak gehitu behar zaizkie, eta migratzaileei osasun-arreta kendu izana ere bai; horrek guztiak gabeziak eragiten ditu VIHren kutsadura kontrolatzeko garaian; eta hori da hain zuzen ere, pandemia gerarazteko eta VIH/hiesik gabeko belaunaldi bat lortzeko oinarritzko estrategia. Euskadin murrizketa horietako asko ezarri ez diren arren, Estatuan egoera okertzeak guri ere eragiten digu; izan ere, birusak ez du administrazio-mugarik ezagutzen, ezta nazionalitateen arteko mugarik ere, eta GIB/hiesa beste pertsona batzuei kutsatzeko aukerak areagotu egiten dira esponenzialki; ondorioz, Estatu osoko populazioan GIBen eragina areatuko dela aurreikus daiteke. Illdo horretan, gogorarazi behar da, tratamenduen kostuak beti askoz ere handiagoak izango direla prebentzioaren eta kontrolaren gastuak baino, ez bakarrik ekonomikoki, baita osasun publikoari eta bizi-kalitateari dagokienez ere.

Azaldutako guztiagatik, Udalbatzak ondorengo akordioak hartzen ditu:

AKORDIOAK

1. Gobernu zentralari eskatzea, hiesaren aurkako borrokaren nazioarteko eguna dela-eta, osasun publikorako guztiontzako sarbidea berrezar dezan; izan ere, populazioaren zati bati arreta ez emateak gizarte osoaren osasuna okertzen du, bereziki, hiesa bezalako pandemien kasuan. Halaber, gaitzestea hiesari buruzko alderdi anitzeko planaren finantziazioan egindako murrizketa, Osasun Ministerioak erabakitakoa; izan ere, murrizketa horrek eragin lazgarriak izango ditu, kutsadura kasuak areagotu egingo direlako.
2. Erabakitzea, Udaleko Gizarte Zerbitzuek, Osakidetzarekin eta hiesaren aurka lan egiten duten GKEekin elkarlanean, GIB birusari aurrea hartzeko informazio-kanpaina bat garatuko duela udalerrian,

preserbatiboaren erabilera sustatzeko, eta herritarrek kontzientziazteko, hiesa detektatzeko proba egin dezaten; GIBen diagnostiko goiztiarrak osasunaren kalitate hobea ziurtatzen duelako, eta osasun-gastuak merkatzen dituelako. Kanpaina hori bereziki zuzenduko zaie gazteei, biztanleria zaurgarrienari, hau da: gizonekin sexu-harremanak dauzkaten gizonei (GSG); eta arrisku handiena duen biztanleriari, hau da: prostituzioan lan egiten duten emakume eta gizonei.

3. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eskatzea, ospitalean ematen diren botiken berrordainketa aplikatu ez dezan; izan ere, neurri horrek eragin kaltegarria du GIB/hiesa duten gaixoengan, botika horietako batzuk ezinbestekoak direlako GIB/hiesarekin lotutako gaixotasunen tratamenduan.
4. Elkartasuna adieraztea, udalerrian GIB/hiesak eragindako guztiei, eta baita birus horren ondorioz hil diren milaka eta milaka pertsonen senitarteko eta lagunei ere.
5. Akordio honen berri ematea lurralde historikoan GIB/hiesaren aurkako borrokan lanean diharduten GKEei, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eta Osasun Ministerioari.

GIB/hiesaren arloan lan egiten duten GKEak.

- Bizkaiko hiesaren aurkako herritarren batzordea.
- Arabako hiesaren aurkako herritarren batzordea.
- Gipuzkoako hiesaren aurkako Heritarren Elkarte.
- T4 elkarte. Bilbo.
- Oiartzungo hiesaren aurkako "Harri Beltza" elkarte.
- EGHAM GIPUZKOA. Donostia.
- Bermeoko hiesaren aurkako "Txo Hies" elkarte.
- AUKERA zentroa. Donostia.
- AUKERA zentroa. Irun.
- GEHITU. Donostia.
- ALDARTE. Bilbo.
- ITXAROBIDE. Bilbo.
- HEGOAK ALDE. Bilbo.
- GIZARTERAKO.
- ASKABIDE. Bilbo.

Pasaian, 2013ko azaroaren 21ean.